

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, GORA
ESKOLA KLUBAK EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAK 2016KO
OTSAILAREN 3AN EMANDAKO EBAZPENAREN KONTRA
AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

Espediente-zenbakia: 4/2016

AURREKARIAK

LEHENA.- 2016ko urtarrilaren 9an, goizeko 10:30ean, areto-futboleko partida jokatu behar zuten Gora Eskola eta Otxartabe taldeek Bilboko P.M. Abusun. Areto-futboleko Lurraldeko Kadeteen Kategoriako 2. taldeko partida zen, 2015-2016 denboraldikoa.

Partida hartarako izendatutako jokozainak, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx(e)k, honako hau jaso zuen aktan: "*Gertakariak: ezin da partida jokatu zelaia okupatuta dagoelako*".

BIGARRENA.- Gora Eskola klubak alegazioen idatzia aurkeztu zuen 2016ko urtarrilaren 11n. Idatzi horretan dioenez, partidaren egunean goizeko 11:00etatik aurrera zelaia okupatuta egongo zela jakin zutenean, eskubaloiko San Adrián klubak jokatu behar zuelako, harekin harremanetan jarri ziren eta eskubaloiko klubak bere partida hamabost minutu atzeratzea onartu zuen. Idatzian adierazitakoaren arabera, partida hasteko ordua hamabost minutu aurreratzen saiatu zen jokozainarekin eta Otxartabe taldearekin, baina ez zen posible izan lehiakideak ez zuelako nahi.

HIRUGARRENA.- Euskadiko Futbol Federakundearen Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak Gora Eskola taldeari 40,00 euroko isuna jartzea eta 0-6 emaitza teknikoarekin zigortzea erabaki zuen 2016ko urtarrilaren

12an, Bizkaiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Araudiaren 94.4 i) artikuluan oinarrituz.

LAUGARRENA.- Ebazpen zigortzailearen jakinarazpena jaso ondoren, Gora Eskola klubak errekurtsua aurkeztu zuen Bizkaiko Futbol Federakundearen Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 12an emandako ebazpenaren kontra.

Errekurtsuaren testuan, Gora Eskola klubak honako hau dio: "*Gure gain hartzen dugu partidaren eguneko akatsa*". Ez du ulertzen antzeko egoeretan zergatik erabakitzen den partida jokatzea eta oraingo honetan zigortu egin dituzten, eta bi adibide eman ditu.

BOSGARRENA.- Bizkaiko Futbol Federakundearen Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak txostena egin zuen 2016ko otsailaren 1ean eta bertan honako hau dio: "*...ezin izan zen aipatutako partida aldez aurretik adostutako orduan jokatu C.D. Gora Eskola taldeari bakarrik egotz dakizkiokeen arrazoiengatik. Araudiaren arabera, talde horrek bermatu behar zuen partida jokatu ahal izatea*".

Partiden datari eta ordutegiari buruzko datuak klubek sartzen dituztela gehitu zuen eta errekurtsu-egileak jarritako bi adibideei dagokienez, partidak aurreikusitako egunean jokatu ez izanaren arrazoia ezin dakieke lehiakideei egotzi, interesdunek aurreikusi eta ekidin ezin zituzten arrazoiengatik izan zelako, gerora sortu zirenak.

Sestao F.S. klubari partidaren esleipenean izandako akatsagatik ezarritako zehapena aipatzen du, akats haren erruz ezin izan baitzen partida jokatu. C.D. Gora Eskola kluba bera izan zen lehiakidea kasu hartan.

Amaitzeko, ondorengo dio: "*... Izendapena egin behar duenak behar bezala egiten ez badu eta ondorioz partida bat jokutzen ez bada, ezin zaio horren ardura talde bisitariari edo Federazioari berari egotzi*".

SEIGARRENA.- Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordeak C.D. Gora Eskola klubak aurkeztutako errekurtsua ezestea erabaki zuen 2016ko otsailaren 3an.

ZAZPIGARRENA.- 2016ko otsailaren 16an Gora Eskola klubeko presidentearen idatzi bat jaso zen Kirol Justiziako Euskal Batzordearen idazkaritzan. Idatzi horren bidez, Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordeak 2016ko otsailaren 3an emandako ebazpenaren kontrako errekurtsua aurkeztu zuen. Aipatutako ebazpenaren bidez, klub horrek Bizkaiko Futbol Federakundearen Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 12an emandako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsua ezestea erabaki zen.

Idatzi hartan, Gora Eskola klubak dio partida hasteko ordua hamabost minutu aurreratzen saiatu zela jokozainarekin eta Otxartabe taldearekin, baina ez zela posible izan lehiakideak ez zuelako nahi.

Ez du uste Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordearen aurrean aurkeztutako errekurtsuan aipatzen zituen bi adibideetan aurreikusi eta ekidin ezin zitezkeen arrazoiak egon zirenik, gerora sortutakoak.

Horrez gain, ondorengoa dio: "*Egoera hau ezin zen aurreikusi eta ekidin, aurkeztutako kasuetan gertatu zen bezala, eta beraz, normaltasunez jokatu beharko litzateke partida*".

ZORTZIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidera onartzea eta Euskadiko Futbol Federakundeari espedientea eskatzea erabaki zuen, urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan oinarrituz. Horrez gain, alegazioak izapidetzea eta froga-eginbide egokiak aurkezteko aukera ematea erabaki zuen.

BEDERATZIGARRENA.- Era berean, Gora Eskola klubak aurkeztutako errekurtsuaren berri eman zitzaion Otxartabe B.E. klubari, alegazio egokiak egiteko, eta ez du adierazpenik egin.

HAMARGARRENA.- 2016ko otsailaren 25ean Euskadiko Futbol Federakundeak bidalitako espediente jaso zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen esku-hartzea ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, 138.a) artikuluan –106.2 artikuluari dagokionez– eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, adierazitako Batzordea arautzen duenak, 3.a artikuluan xedatutakoan oinarrituta dago.

BIGARRENA.- Bizkaiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Araudiaren 94.4.i) artikulua araberak, "*Ondorengo hauek huts larriak dira eta zigortu egingo dira... 40 eurotik 60 eurorainoko isunekin kadeteen kasuan, partida galdutzat emango da eta lehiakidea izango da irabazlea 6-0 goleko emaitzarekin...: ...i) Federazio-erakunde eskudunen aginduak, instrukzioak, erabakiak edo arauzko betebeharrak ez betetzea, izaeragatik edo inguruabarrengatik, ez-betetze hori larritzat jotzen denean edo nahita edo behin eta berriro egiten denean*".

HIRUGARRENA.- Bizkaiko Futbol Federazioaren 10 zenbakidun zirkularrak, jokalekuaren erabilgarritasunari buruzkoak, honako hau dio: "*Partiduak jokatzeko, futbol zelaiaren erabilerarako gutxieneko denbora kategoriabakoitzean hurrengoa da... Areto-futbola: 75 minutu*".

LAUGARRENA.- Bizkaiko Futbol Federazioaren 11 zenbakidun zirkularraren arabera, "*Ostiral, larunbat eta igandeetan jolastuko diren partiduen data, ordua eta futbol zelaiak, **partidua jolastu baino zazpi egun lehenago** Federazio honek eduki behar ditu, notifikazioa internet bidez soilik eginez, Federazioko web orrialdearen bidez, www.fvf-bff.org orrialdera, klub bakoitzaren gune pribatuan sartzan eta hurrengo jardunaldiko ordutegiak jartzen, hauek behin betikoak izango dira. Partiduen datak aurreratzeko eta atzeratzeko Federazioan*

*dagozkion eskaerak egon beharko dute **lehen aipatutako epean**. Federazioa izango da baimena emango duena. **Arau honen ez betetzeak dagokion txapelketa eta diziplina organoak (Araudi orokorreko 86. art.)** partiduen antolakuntza betebeharren ez betetze bezala, zigortua izango da".*

BOSGARRENA.- Bizkaiko Futbol Federakundearen 11 zenbakidun zirkularren arabera, areto-futboleko partiden iraupena berrogeita hamar minutukoa izan behar da kadeteen kategorian. Hogeita bost minutuko bi zati izango dituzte, bost minutuko atsedenaldiarekin.

Aipatutako zirkular horrek honako hau dio partiden dataren eta orduaren inguruan: *"Klub antolatzaileek partida ofizialak hasteko ordua ezarriko dute, BFFren Araudi Orokorreko III. Liburuaren 86. artikuluko 1. puntuan xedatutakoari jarraituz eta egutegian adierazitako datak errespetatuz.*

...

*Ostiral, larunbat eta igandeetan jolastuko diren partiduen data, ordua eta futbol zelaia, **partidua jolastu baino zazpi egun lehenago** Federazio honek eduki behar ditu, notifikazioa internet bidez soilik eginez, www.fvf-bff.org. **Arau honen ez betetzeak dagokion txapelketa eta diziplina organoak (Araudi orokorreko 86. art.)** partiduen antolakuntza betebeharren ez betetze bezala, zigortua izango da".*

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi zuzendutako errekurtsua ezestea, Gora Eskola klubak Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordeak 2016ko otsailaren 3an emandako ebazpenaren kontra aurkeztutakoa. Ebazpen haren bidez, aipatutako klubak Bizkaiko Futbol Federazioaren Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 12an emandako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsua ezestea erabaki zen. Horrela,

errekurtsua aurkeztu zitzaion ebazpen hori baieztatu zen bere osotasunean. Hala, 40,00 euroko isuna jarri zitzaion futbol taldeari eta galdutzat eman zen areto-futboleko Lurraldeko Kadete Kategoriako 2. taldeari zegokion partida hori, Otxartabe B.E. taldearen aurka jokatu behar zena 2016ko urtarrilaren 9an, goizeko 10:00etan, 0-6 emaitza teknikoarekin.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 8a

José Luis Aguirre Arratibel

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA